

# GAZTE NAIZ

## ASTETIK ASTERA SOCIOLOGO HAUNDI BATI ENTZUN ONDOREN

Hitzaldi bat entzuteko aukera egokitu zait berriki: "Gizarte-klaseak eta ezaguera", Gurvitch'ek emana. Gurvitch soziologo haundi bat izaki, joatea erabaki nuen. Bere iritzia zientziatzeko iritzia zitzaidan; eta Errusiatik bera aspaldidanik iges-egitiki, ez zitzaidan hizlaria marxisten aldekoa iruditzen...

Azken hiru klase nagusiei buruz mintzatu zitzaigun. Lehendabizi, burgesiaren filosofiaren ezagugarri nagusiak azaldu zituen; eta Pascal ezik, baikortasun funtsezko bat aurkitu uste du. Bigarrenik, langilleriaren pentsakera azaldu nahiz, Proudhon eta Marx azaldu zituen, lehenengoaren balioa bigarrenaren baino gorago aipatuz. Pentsakera hau pragmatikoa eta politikoa zaitu gehien bat. Azkenik, gaur geure begien aurrean sortu klase berriaren pentsakera berezia aztertu zuen: berak tekno-burokrazia deitu zuena. Eta hunket teknika eta zientzia nahasten dituelako, gure zibilizazio osoa hondatzeko arrisku handia dagoela esan zuen.

Jendeak txalo jo zion ugari. Baiña, bistan da, ez noa ni hemen Gurvitch'en soziologia hitz gutxitan azaltzera. Bere bi liburur nagusiak (Sociologie Statique et Sociologie Dynamique) salgai daude edozein liburu-dendetan; eta oso famatuak dira. Emandako hitzaldiaz ere laister argitaratuko oa beste liburu bat. Eta soziologiako aldirikarietan maiz irakur ditezke bere lanak.


Ez noa beraz hortara. Beste gauza batek pentsarazi ninduen gehien bat. Zer pentsatuko ote luteke nere herrikide askok, nereki-ko nion, klaseei buruz hontara hitz egiten entzun ezker? Hau Unibertsitate dauk baino, komunista-zulo bat besterik ez dala; eta hizlaria soziologo bat ez, baiña Moscu'k propio zabalkunde egitera bidalitako pertsonea bat.

Ez horrelakorik, ordea. Soziologian gaur, hau da Zientziaren munduan, klaseen izana eta garrantzia ez du inork ukatzen. Klaseez kanpo ezer ez dagoela esatea besterik da; baiña klaserik ez dagoela, eta klaseen gora-beherak aztertu gabe zientzia eta kondaira eragin ditekela pentsatzea, pikuan egotea besterik ez da.

Zoritxarrez, kontra jartzea besterik ez dakiten gure arteko askok, probetxu handia atera zezaketen Gurvitch soziologoaren ideiak ezagu balizate.

Agian laister!

GOIHENETXE



## IDAZKITZA

Larraitx'tik R. A'ren eskutitza hartu dugu ona emen zer dion:

"Kaspita, nion nereki-ko, nere pentsamentuak adibinatzen dituzte, baina, ni ez izan kapaz ideia oiek errealdade bihurtzeko.

Zuen laboria pauso luze bat da gure izakera berritzeko. Zuen da aspiratzen dutan oxigenoa. Oxigeno garestia. Nazka naiz, nintzelako zaarra. Binan nazka orren pusketak atara bear dituk neretik. Lagundu! Bearra dut.

Egiaren bildur naiz. Zuen artikulu batzuk letu ostian ikara artzen dut. Zauria sakona dalako noski.

Zauria ikusi dut, ta arpegia aldatuaz parrari ekin diot. Nere erruaz arduratu naiz.

Boligragua txupatuaz, ziara deskorapillatuta irtetzen zaizkit itzak. Lana daukat aurrean, bigarren mallako lan bat. Saizarbitoria errete dituk kulpak. Ezagutu ezkeroz, kasorik egin gabe pasako nindukan ire aurretik. Zaila zait ire mandatuak akatatzea. Gabean ezin izango dit lo artu gabe gelditu. Problema besteik ez diak jarri aurrean. Azkenik, nere lo baketsua apurtu dek. Mil esker".

Ire eskutitza irakurtzean neronek beste bateri egindakoa zela us-ten nuen...

Eskerrak iri, gazte izateri jarraitzen laguntzen digukalako. Etzaxela boligrafoa txupatu. Saiatu adi ire barrena agertzen, ba duk indarra. Esmatze hori ez dedilla une bateko gauza izan burrukatu adi, ire gorputza menderatu zak, emaiok aurpegia beti errealditateari. Burrukatu adi bai, baina ez bakarka gaur ik gure beharra izango duk, bihar guk irea... Sua ezin ditekete itzaltzen utzi, batak eta besteak babestu egin behar dugu.


Arren, etzakela kasorik egin nere aurretik pasa. Ire berri jakin nahi nitek... Agur.

OAR BAT.—Nere laguntzaren zai zaudeten guziok, arren eta arren, barka nere utsunea, baina oraingo egoeran ezin dut ezertxo-re egin.

Ez al da luzaroko izango...

Klinikatik atera bezin azkar zuekin izango nauzute.

IASKI BEOBIDE



## EUSKAL DANTZA BERRIAK

Atzo, aste ontako Z. ARGIA irakurtzen ari nintzala, «Euskal dantza berriak sortuteko sariaketa»ren berri izan nuen.

Donostiara naiz. Donosti'n jaio nintzen eta emen ezi naiz arrezker. Ez dakit euskal-dantzarik dantzatzen. Ez dut euskal-dantzarik ikasteko asmorik. Eta egia esateko, mila aldiz geigo gusatzen zait dantza lotua euskal-dantza baino. Lotsarik gabe aitortzen dut au.

Euskalduna banaiz, baita ere gaur eguneko gaztea. Gaurko mundua maitatzen dut. Gaurko munduko gauza onak, eta baita «txarrak» ere. Gaurko problemak, gaurko pentsaera, gaurko izate-tankera, eta gaurko musika eta dantza ere bai. Eta Donosti'n, ni bezelako gazte asko ezagutzen ditut, gaurko munduko euskaldun neska eta mutil asko. Donosti'n gertatzen dana, Euskalerriko beste toki askotan gertatzen da. Euskaldun gazte auek, euskal-dantza zaleak bezain euskaldunak gerala uste dut.

Askotan itz-egin dut euskeraz dantza-lekutan eta guateketan. Askotan euskeraz Donosti'ko kaleetan, askotan

euskeraz Injinadore-Eskolan. Euskalduna naiz, lotsarik gabe aitortzen dut. Gaurko eguneko euskaldun gaztea.

Euskalduna izateko, euskeraz mintzatu ta euskeraz pentsatu, ez da besterik bear. Baina au, nai eta naiezkoa da euskalduna izateko. Euskeraz ere duan euskalduna ezin ditekete ulertu, erromeriz-erromeri eta euskaljaiz-euskaljai txapel aundia buruan duela ibiltzen bada ere.

Pena ematen dit euskal-musika ariñik ez dagoela iustek. Pena ematen dit beti erderazko abestiak dantzatu bearrak. Noiz izango dugu euskaldunak euskerazko musika ariña? Erdal-izkuntzetan mintzatzen diran gazteak, bakoi-tzak berean, ba dute bere musika ariña. Eta guk, euskaldunak?

Euskeraz salbatu nai badugu, gaurko mundura eraman bear dugu, baserrian gorde gabe. Euskeraz euskaldunengan eraman bear dugu, eta ez euskaldunak euskeragan.

Folklore geiegi darabilguko euskaldunak gauza onerako. Eta euskal-folklore indartu ondoren euskeraren etorkizuna lehen bezain beltza geldituko dala uste dut. Sariaketa ontan ondatuko dan dirua «Euskerazko musika ariñaren

## LAN-EGIN, ZERTARAKO?

Gazte naiz... dana daukat guziaren jabe naiz. Nitzaz bakarrik baino zerbaiz geigotan pentsatzeko gauza naiz... Eman nahi dut, dutan guzia eman, bildurrik gabe, neurrik gabe... Neurtzea ain da eskasa... Zahartu naizela diote, baliteke, alde batetik baliteke... Mundua kolpera iriki zait nere begien aurrean, eta ikusten ditutan gauz geienak ulergaitzak dire niretzat... Zoritxarrez denbo gutxian desengauz gogorak izan ditut... Baina oraindik emateko kapaz naiz... eta borondate onez ematen dutana ez didatenean hartzen... orduan bakarrik hilluntzen naiz... zahartzen naiz...

Gazte asko ez dire emateko kapaz eta ez duk konprenitzen. Atso zahar baten berekoikeria konprenitzen dut, ez ordea gazte batena. Konprenitzen dut San Antonioren nobena egin orduko miraria eskatzen duen «serora» ximela... Indiako gosea asetzeko, peseta miserale bat ematean, diru hori alperrik galduko ez ote dan kezkan dagoen atso irudikorra ere bai... Ez ordea zerbaiz emateko, saria ikustea beharrezko duen gaztea...

Nik nahi dut eman, emateagatik... Hartzeko itxaropenik ez ba dut ere... Emate horrekin ezer lortuko ez ba dut ere, barrengo pakea arkitzea ez ba da ezer... Nahi dut lana egin obligazioa dutalako.

Askotan esan dut, lan egin behar dugula, egitazko lana. Ideial bat dugonik, ideia horri jarraitu behar diogula, bidea neketsua bada ere... Buakaera beinere ikusiko ez ba dugu ere...

Gazte batzuek galdetu izan didate:

Lana egin bai, baina zertarako? Bai ote dago gure asmo eder horiek lortutzea? Bidearen bukaera ez ba dugu ikusten zertarako? Zertarako? Nik erantzuten diot. Gure ideia hori ona ba da, nahi ta nahiez beregatik lan egitera behartuak gaudelako...

Ikasle onak zer egiten du asijsnatura bat aprobatazen zaila ikusten ba du... Estudiatu, estudiatu beti... (beinere ezin ditekete, suspentiduko dan ziurtasun osoan egon) lanari egiten dio... eta suspentiditza ba du, gutxienez, ez du beren gurasoen aurrean agertzeko bildurrik izango, ba dakite alegin guztiak egin dituala, lasai egingo da, egin beharra bete du...

Bainan gazte hauek ikasle txar baten modura indarrak alperrik ez gastatzearen, alperrik ez ematearen, materia aprobatazeko posibilitaderik ez dagoela ta, egin beharri begiratu gabe, baezpada ere ez dute probarik egiten.

Gazte egoista... kezka du ezer eman baino lehen, emate hori alperrikakoa ez ote dan izango...

Gure asmoak lortu edo ez «ematea» ez da beinere alperrikakoa izango. Eskatzen duguna ez al da legezkoa? Orduan eskari hori lortzea behartuak gaudete... Moralez behartuak gaudete...

Ez ba dugu lortzen... alegiñak egiteak ematen duen lasaitasuna izango dugu... Baina posibilitaderik ez dagoela ta ez gaitzela probarik egin gabe gelditu.

Gure aurretik beste batzuek proba egin dute. Bai, ez dute ezer lortu... Eta beharbada lan egiteak ez duela merezi esango dute... Pekatu haundiagorik! Ikusten da etzeudela bere egin-beharraren ziurtasunean. Bestela ez litzazke horrela harituko... Lana ez da beinere bukatzen... eta orain beren lana gazteak bultzatzea da.

—Lana egin bai, baina zertarako? Ba ote dago ezer lortzerik...?

Nik ez dakit, hori ezin esan ditekete, baina probarik egin gabe ez naiz geldituko... nire ideialari jarraituko diot eta munduko gaztarik haundiena lortuko dut barrengo pakea, kontzientzia lasaia izatea.

Nun dago lortuko ez dala ziurki esateko kapaz dena? Denok kontzientzia lasaia izatea lortuzten ba dugu egiteko lan bat aukeratuz gure asmoak beteko diran ziurtasun osoan naiz...

Bainan... kontu ez dezagun gure kontzientzia uskeriko lan batekin lasaitu. Ark ekarriko dituen ondoren uskeriak besterik ez bai dire izango...

SAIZARBITORIA

IBON SARASOLA